

Zangoza / 2022

KULTUR AGENDA

ekaina



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



OFICINA DE CULTURA
PALACIO DE CULTURA
VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA



Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea

Kultura-zerbitzuko arreta ordutegia: Astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa Aretoko ordutegia: asteartetik larunbatera, 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Igande eta Jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Gonbidapenak hartzea: Pertsona eta jarduera bakoitzeko gehienez 4 sarrera jaso ahal izanen dira. Sarrerak ez dira zenbakidunak eta ikusleak iritsiera-ordenaren arabera eseriko dira. Gonbidapenak **ekainaren 1etik aurrera** jaso ahal izanen dira Kultura-etxean, asteartetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870251 telefonora deituz edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidean.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es. Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agenda jarrai dezakezu eta datuak babesteko legea honakoetan kontsultatu: www.sanguesa.es

 www.facebook.com/culturasanguesa  www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko salmenta: ekainaren 1etik aitzina Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. **Tfnoa:** 948 870 251.

Salmenta txartel-leihatilan antzeppen egunetan: Karmengo Entzunaretoke txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik. **Tfnoa:** 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua 4koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko.

Ikuskikunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izango da.

Beharpenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretoara sartzean.

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonia erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparatirik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikotan edo deitu 948870251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

KULTUR AGENDA

ekaina



- | | | |
|-------|---|----------|
| 1 Az | Erakusketa. "La mirada objetiva" (Ekainaren 5a bitarte) | 4. Orr. |
| Az | Zangoza sortu zeneko 900. Urteurrena 1122-2022 Hitzaldia. "Pizkundeko eta Barrokoko Zangozan giro artistikoa eta kulturala" | 6. Orr. |
| 2 Og | Musika Eskolaren kontzertua. Eskolako Big-Bandaren eskutik | 8. Orr. |
| 3 Os | Kartel lehiaketarako epearen amaiera. Patroi jaiak eta literatur lehiaketa Haurrak "Zangozako Hiria" | 9. Orr. |
| 4 La | Euskararen Eguna | 7. Orr. |
| 5 Ig | Amateur antzerkia: "Amor, dulce amor" | 5. Orr. |
| 6 Al | | |
| 7 As | | |
| 8 Az | | |
| 9 Og | Erakusketa "Saguzarrak, gauaren aliatuak" (Ekainaren 26a bitarte) | 4. Orr. |
| Og | Musika Eskolaren kontzertua. Eskolako Banda Txikiaren eskutik | 8. Orr. |
| 10 Os | Dantza. Zangozako Dantza tailerretako Ikasleen erakustaldia | 5. Orr. |
| 11 La | Zangozako Udal Banda Elkartearen kontzertua: "Munduko koloreak: Musika bidaia Bandaren bidez" | 7. Orr. |
| La | Zangozako Abiadura-Irristaketako lehiaketa | 10. Orr. |
| 12 Ig | | |
| 13 Al | | |
| 14 As | | |
| 15 Az | Zuretzako antzerkia: "Corazón de campeona" | 6. Orr. |
| 16 Og | Musika Eskolaren kontzertua. Eskolako Konboaren eskutik | 8. Orr. |
| 17 Os | | |
| 18 La | | |
| 19 Ig | Rural Kutxa BTT Lehiaketa 2022 | 10. Orr. |
| 20 Al | | |
| 21 As | Kontzertu didaktikoa. Ibai Osinaga musikariarekin topaketa (euskaraz) | 8. Orr. |
| 22 Az | "Saguzarrak, gauaren aliatuak" erakusketara bisita gidatua | 4. Orr. |
| 23 Og | | |
| 24 Os | Pablo Sarasate Kontserbatorioko ikasleen kontzertua | 8. Orr. |
| 25 La | | |
| 26 Ig | | |
| 27 Al | Osasunaren Udako Futbol Campusa 2022 | 10. Orr. |
| 28 As | | |
| 29 Az | | |
| 30 Og | Ikerketa lehiaketarako epearen amaiera: "Enrique de Albret, el Sangüesino" | 9. Orr. |

Azaleko irudia: "Corazón de campeona".

Erakusketak



“La mirada objetiva”

JORDI LARROCH. ARGAZKIAK

EKAINAREN 5A BITARTE

“La mirada objetiva” Jordi Larroch argazkilari eta poeta bartzelonarraren irudien bilduma da, 2014tik 2021era.

Tonu ironikoz, behaketara eta hausnarketara gonbidatzen du ikuslea, objektu arruntenen barruan ezkutatutako poesia deskubritzera, eraldaketa txikiak eginez eta haien funtzioa, testuingurua eta ohiko erabilerak aldatuz.



“Saguzarrak, gauaren aliatuak”

JUAN TOMÁS ALCALDE eta IÑAKI MARTÍNEZ

SAGUZARRAK KONTSERBATU ETA AZTERTZEKO ESPAINIAKO ELKARTEA (SECEMU)

EKAINAREN 9TIK 26RA

Nafarroako saguzar espezie ezberdinak ezagutzeko argazki erakusketa. Bere biologiaren hainbat alderdiren eszenak ere erakusten dira: hegaldia, hibernazioa, ugalketa, etab. Horrekin batera, anatomiari, fisiologiari eta dibertsitateari buruzko informazio-panelak egonen dira..



Erakusketara bisita gidatua Juan Tomás Alcalde eta Iñaki Martínezekin

ASTEAZKENEAN, EKAINAK 22

Juan Tomás Alcalde zientzia biologikoetan doktorea da, saguzarretan espezializatua. Gaur egun SECEMUko lehendakaria. Iñaki Martínez saguzarretan esperientzia duen basogintzako teknikaria da, eta SECEMUko kidea ere bai. Biek lan egiten dute aldizka saguzarren kontserbazioan eta horien gaineko ingurumen-inpaktuaren azterketetan.

Ordua: 19:30.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/
Kultura-etxe Erakusketa Aretoa.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera, 11:30etik
14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Igande eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Arte Eszenikoak eta musika Karmengo Emtzunaretoan



AMATEUR ANTZERKIA

"Amor, dulce humor"

Alonso de Santosen Cuadros de Humor y Amor al fresco antzezlanaren piezen aukeraketa

"ANTSA OIBARKOA ANDREA"

ANTZERKI-TALDEA

EKAINAK 5, IGANDEA

Zuzendaria : Mercedes Castaño.

Antzezleak: Natasha Castañeda, Beatriz Olagüe, Ilu Santesteban, Miguel Monreal, Isabel Belzuz, Tere Ayesa, Fernando González, Tasús Burguete, Javier Cebollero.

Pandemiaren ondoren, Antsa Oibarkoa andrea taldeak freskotasunez beteriko obra dibertigarri baten aldeko apustua egin du aurten. Maitasunez, samurtasunez eta grinaz beteriko bizi-zati txikiak, ezinegon pitin batez apainduak.

Ordua: 20:00.

Iraupena: 90 minutu.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Aldez aurreko sarrerak: 5 €.

Txartel-leihatilan: 6 €.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



DANTZA

Zangozako Dantza tailerretako ikasleen erakustaldia **FUERADELEJE** konpainiak zuzenduta

EKAINAK 10, OSTIRALA

I. taldea: 17:30etik 18:00etara.

II. taldea: 19:00etatik 19:30era.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Doako sarrera: Edukiera bete arte.

Gonbidapenak aldez aurretik hartu behar dira. Gehienez ere, 4na sarrera. Sarrerak ekainaren 1etik aurrera hartu ahal izanen dira Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta eta 19:00etatik 21:00etara, eta www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrietan.

Zuretzako antzerkia



“Corazón de campeona”

TDIFERENCIA

EKAINAK 15, ASTEAKENA

Antzezlea: Ainhoa Ruiz.

Umorezko bakarrizketa honek maitasun erromantikoaren mitoak aztertzen ditu, hala nola guretzako moduko lagunaren mitoa, minaren mitoa, eksklusibotasuna eta abar luze bat. Gure protagonistak ibilbide bat eginen du bere bizitzan zehar, ring batean sartuta, eta barreaz eta konplizitateaz laugarren roundean KO utziko gaitu.

Ordua: 19:30.

Iraupena: 60 minutu.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxe Erabilera Anitzeko Aretoa.

Ikasleak: Gazteak eta helduak.

Doako sarrera edukiera bete arte.

Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira. Gehienez ere, 4na sarrera. Sarrerak **ekainaren 1etik aurrera** hartu ahal izanen dira aurrez aurre Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870251 telefonora deituta edo infocultura@sanguesa.es posta elektronikokoan.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuak.



Zangoza sortu zeneko 900. Urteurrena



“HISTORIAREKIN HITZORDUA” HITZALDI ZIKLOA

“Pizkundeko eta Barrokoko Zangozan giro artistikoa eta kulturala”

EKAINAK 1, ASTEAZKENA

Hizlaria: Ana Ulargui Palacio. Artearen Historian doktorea.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxe Hitzaldi Aretoa.

Ordua: 19:00.

Sarrera: Doan edukiera bete arte.

Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira.

Laguntzailea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP).

Euskararen Eguna



EUSKARAREN EGUNA 2022

EKAINAK 4, LARUNBATA

Aizu laguna! Bueltan da Euskararen Eguna!

- 11:30ean Ikastolako dantzari txikiak
- 11:30ean Pintxo Potea euskal musikaz girotua
- 12:00etan Haurrendako tailerrak
- 12:00etan Mintzodromoa
- 13:30ean Ekitaldia
- 15:00etan Herri bazkaria
- 17:30ean Katxi Txarangarekin poteoa
- 20:00etatik 00:00etara Erromeria Bada Giro eRomeria taldearekin.

Ekintzak Arkupeetan burutuko dira.

Egunean zehar, barra postua egonen da edari eta pintxoekin.

Antolatzailerak: Bi Haizetara.

Zangozako Udal Banda Elkarte



MUNDUKO KOLOREAK

Musika bidaia Bandaren bidez

ZANGOZAKO UDAL BANDAREN UDAZKENEKO KONTZERTUA

Zuzendaria: Javier Calvo Lerga.

EKAINAK 11, LARUNBATA

Munduak eta bere kulturek hamaika musika eta sonoritate eskaintzen dituzte, beren tradizioetatik eta folkloretik jasoak, beren bizi-istorioen bitartez eboluzionatuak, eta baita haietako batzuen izaeraren nahasketatik abiatuta sortuak ere. Horri guztiari koloreak dei diezaiokegu; Bandak atsegini handiz "margotu" eta partekatu ahalko dituen musika-koloreak.

Mota horretako taldearendako idatzitako jatorrizko konposizioen bidez, munduaren inguruan bidaia bat egin ahal izanen dute, New Orleanseko hileta-jazz batera joateko, Rio de Janeiroko hondartzetako zokoak ikusteko edo Afrikako gazte baten ametsa eta grina ezagutzeko, besteak beste. Musika deskribatzailea eta askotarikoa egoera puruan.

Ordua: 19:30. **Lekua:** Arkupeak.

Gutxi gorabeherako iraupena: 70 minutu.

Antolatzailerak: Zangozako Udal Banda Elkarte.

“Juan Francés de Iribarren” Musika Eskola



**“Kontzertua Parkean”
Big-Banden eskutik**

EKAINAK 2, OSTEKUNA

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmen atzealdea.

**“Kontzertua Parkean” Eskolako
Banda Txikiaren eskutik**

EKAINAK 9, OSTEKUNA

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmen atzealdea.



**“Kontzertua Parkean” Eskolako
Konboen eskutik**

EKAINAK 16, OSTEKUNA

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmen atzealdea.

**Pablo Sarasate Kontserbatorioko
ikasleen kontzertua**

EKAINAK 24, OSTIRALA

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Kontzertu didaktikoa



**IBAI OSINAGA MUSIKARIAREKIN
TOPAKETA (Euskaraz)**

EKAINAK 21 ASTEARTEA

Ibai Osinaga Iruñean jaio baina Irunberrin bizi den musikari gaztea da. Hainbat musika taldetako kide izandakoa, hitzaldi musikatu honetan bere ibilbideaz mintzo da: musikari noiz eta nola hasi zen, zeri kantatzen dion, zergatik kantatzen duen...

Azken finean, saio honetan bere sorkuntza nolakoa den ikusteko aukera izanen dugu. Horretarako ibilbide kronologiko bat proposatuko digu, kantuekin lagunduta. Gainera, kantu baten prozesu guztia ezagutuko dugu,

Kontzertu didaktikoa



sortzen den momentutik entzuten dugun momentura arte.

Zangozako Udalak AEKrekin elkarlanean antolatutako ekintza PRAKTIKATU programaren baitan.

Ordua: 18:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko lorategia.

Ikusleak: Publiko guztiarentzat.

Doako sarrera.

Lehiaketak



ZAINDARIAREN FESTETARAKO LEHIAKETAK 2022

- 2022ko Zaindariaren Jaietako Kartel Lehiaketa
- "Zangozako Hiria" Haur-literaturako Lehiaketa. Hitz lauz edo bertsoz

Bi lehiaketetarako aurkezteko epea: Maiatzaren 3tik ekainaren 3ra 14ak arte. Oinarriak eskuragai Kultura-zerbitzuan edo www.sangüesa.es, www.sangüesacultura.es udaleko web-orrietan.

ALBRETEKO ENRIQUE ZANGOTZARRA XXVII. IKERKUNTZA-LEHIAKETA

Lanak Zangoza eta zangozarrei buruzkoak izan behar dute. Lan-egitasmoen aurkezpena Zangozako Udaletxean egingen da 2022ko ekainaren 30a (barne) baino lehenago. Aurkezturiko lanak Zangotzarra Aldizkarian argitaratu eman litezke.

Oinarriak: Eskatu honako helbidean www.zangotzarra.es

Antolatzailea: Albreteko Enrique II. Kultura-taldea.



Kirolak



ZANGOZAKO ABIADURA-IRRISTAKETAKO XII. LEHIAKETA

LARUNBATEAN, EKAINAK 11

Mailak: Mini, Aurrebenjamina, Benjamina, Kimua, Haurrak, Gazteak, Absolutua eta Herri Lasterketa.

Ordutegia: 09:30etik 14:00etara.

Lekua: Ongay, Baratiñones, Cantolaguako Pasealekua eta Luzakina karrikak.

Antolatzaileak: Cantolagua K.E., Irristaketa eta Abiadura Saila, Nafarroako Abiadura-irristaketa Federazioa.

Babesleak: Zangozako Udalaren Kirol Patronatua eta Nafarroako Gobernu-Nafarroako Kirol Jokoak.

RURAL KUTXA BTT LEHIAKETA 2022

IGANDEAN, EKAINAK 19

Lehen txanda: 10:00etan. Mailak: gizonetzkoen eta emakumezkoen kadeteak, emakumezkoen juniorrak, gizonetzkoen 40 eta 50 urte, eliteak eta 23 urtetik beherako emakumezkoak.

Bigarren txanda: 12:00etan. Mailak: gizonetzkoen juniorrak, eliteak, 23 urtetik beherako gizonetzkoak eta 30 urteko masterrak.

Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara.

Lekua: Txola eta Prau (helmuga).

Antolatzailea: Zangozako 4 Caminos Kirol Elkarte.

Babesle eta laguntzailea: Zangozako Udalaren Kirol Patronatua.

OSASUNAREN UDAKO FUTBOL CAMPUSA 2022

ZANGOZA UDALETAKO CAMPUSAREN EGOITZA

4 eta 14 urte bitarteko haurrenako.

EKAINAREN 27TIK UZTAILAREN 1ERA

Lekua: Cantolagua U.K.E. ko instalazioak.

Antolatzailea: Osasuna Fundazioa.

Laguntzaileak: Zangozako Udalaren Kirol Patronatua eta Cantolagua Kirol Elkarte.